

Euskal AEko BPGren urte arteko hazkundera %2,6 izan zen 2008ko bigarren hiruhilekoan


2008ko bigarren hiruhilekoan %0,3 hazi da BPG lehenengoaren aldean, atzerirako esportazioei eta herri administrazioen kontsumoari esker

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGk %2,6eko hazkunde erreala izan du 2008ko bigarren hiruhilekoan, 2007ko aldi beraren aldean.

Urte arteko hazkunde-tasa hori Espainiako ekonomian lortu dena baino ehuneko zortzi hamarren handiagoa da (%1,8), 27-EBrena (%1,6) baino puntu bat gehiago eta Estatu Batuetakoa (%2,2) baino lau hamarren handiagoa.

2008ko lehenengo hiruhilekoaren aldean, bigarreneko hazkundera %0,3 izan da. Hiruhileko arteko aldakuntza hori %0,1 izan da Espainiako ekonomian, %-0,1 27-EBko batez bestekoan eta %0,8 AEBn.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-15 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

Sektore eskaintzaileen ikuspegitik, bai lehen sektorea, bai industria, bai eraikuntza batez bestekoaren azpitik hazi dira, eta zerbitzuak batez bestekoaren gainetik.

Industriaren sektoreak urte arteko %1,4ko tasa izan du, aurreko hiruhilekoan baino lau hamarren gutxiago; halere dinamikoena da, zerbitzuen atzetik.

Eraikuntzak, urtetan BPGren gainera hazi ondoren, hirugarren hiruhilekoz jarraian aldatu du joera, hazkundera %1,1 izan delarik. Sektore honetan jaitsiera nabarmenagoa da industrian baino, puntu bat eta hiru hamarren aurreko hiruhilekoaren aldean.

Zerbitzuen sektoreak BPGk baino tasa positiboagoa du, %3,4 hazi delarik; barruan, halere, ezberdinak izan dira jokaerak. **Merkatuko zerbitzuak** %2,7ko urte arteko hazkundera lortzera iritsi dira. Tasa hori BPGren hazkunderaren antzekoa da. **Ez-merkatuko zerbitzuek**, berriz, hazkunde-erritmo handiari eutsi diote; urte artekoa aurreko hiruhilekoan bezalaxe hazi da, %6,5.

Lehen sektorean bi hamarren jaitsi da urte arteko hazkunde-tasa. Nekazaritzaren azpisektorean jokaera positiboa izan da eta negatiboa arrantzarenean.

1. koadroa. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak (*) Euskal AE

	2006	2007	2006				2007				2008	
			I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II
Nekazaritza eta arrantza	-4,4	9,8	-11,0	-2,8	-2,4	0,1	9,8	15,5	-0,2	14,9	5,3	-0,2
Industria	4,2	4,0	5,2	3,3	3,9	4,3	5,3	4,8	3,9	2,2	1,8	1,4
Eraikuntza	4,2	4,6	3,9	4,4	4,2	4,1	5,3	5,0	4,9	3,3	2,4	1,1
Zerbitzuak	4,5	4,2	4,3	4,5	4,6	4,6	4,2	4,0	4,1	4,6	3,6	3,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	4,8	3,4	6,2	5,6	4,2	3,3	3,0	3,6	3,8	3,1	3,5	3,1
BPGda merkatuko preziotan	4,4	4,1	4,6	4,2	4,3	4,3	4,5	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6

(*) Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Eskariaren aldetik azpimarratzekoa da Barne-eskariaren murrizketa, bost hamarren, urte arteko %2,5; kanpo-saldoa positiboa izan da. Hau bigarren hiruhilekoz jarraian gertatu da: esportazioak (%9,0) inportazioak baino gehiago hazi dira (%8,2).

Osagaien arabera aztertuz gero, **Familia-etxeen Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo Pribatua)** %1,4ko hazkunde-tasa izan du; aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko puntu bateko jaitsiera dago, barne-eskaria delarik gehien mantsotzen dena.

Herri Administrazioen Azken Kontsumoko Gastuak (Kontsumo Pribatua) ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu publikoaren babesean, %5,6ko hazkundera izan du, aurreko hiruhilekoaren aldean zertxobait gehitu delarik.

2. koadroa. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko Hazkunde-tasak (*) Euskal AE

	2006	2007	2006				2007				2008	
			I	II	III	IV	I	II	III	IV	I	II
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	3,7	3,4	3,8	3,7	3,7	3,5	3,6	3,7	3,2	3,0	2,4	1,4
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	4,3	5,5	4,0	4,4	4,2	4,5	5,4	3,9	6,3	6,4	5,1	5,6
Kapital-eraketa gordina	5,9	5,5	6,7	5,8	5,8	5,4	6,7	6,0	5,4	5,0	3,1	3,2
Barne-eskaria	4,4	4,4	4,6	4,4	4,3	4,1	4,8	4,4	4,4	3,9	3,0	2,5
Guztizko esportazioak	6,2	7,6	7,7	3,6	6,7	6,8	6,0	8,5	8,6	7,1	6,9	9,0
Guztizko inportazioak	6,1	7,6	7,6	3,8	6,6	6,3	6,4	8,1	8,9	7,2	6,6	8,2
BPGda merkatuko preziotan	4,4	4,1	4,6	4,2	4,3	4,3	4,5	4,3	4,0	3,8	3,1	2,6

(*) *Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.*

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Kapital Eraketa Gordinak (Inbertsioa) aurreko urteko hazkunde tasei eutsi die (%3,2), BPGren gainetik

Esportazioak guztira %9,0 hazi dira eta **inportazioak** %8,2; alegia, gure kanpo-saldoak ekarpen positiboa egin dio ekonomiaren hazkundeari. Atzerrira egindako ondasunen esportazioen gehikuntza azkartu egin da: 2008ko lehenengo hiruhilekoko %11,0ko hazkundetik bigarrenengo %17,4ra pasatu da.

Langile landunak %1,1 hazi dira 2007ko bigarren hiruhilekoaren aldean; aurreko hiruhilekoaren aldean %0,1, mila lanpostu sortu dira. Azken urtean ia 12.000 lanpostu sortu dira.

Bai lehen sektorean, bai industrian, bai zerbitzuetan, positiboak dira hazkunde-tasa urte artekoak eta hiruhileko artekoak; eraikuntzak bakarrik du enplegu galera garbia.

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, 2008ko bigarren hiruhilekoan oso homogeenak izan dira urte arteko hazkunde-tasak: Araban %2,5, eta %2,6 Bizkaian eta Gipuzkoan.

Eustateko kontu ekonomikoen sisteman indarrean dauden eguneratze-protokoloak jarraituz, informazio-sistemara 2006 eta 2007ko egiturazko estatistikak ekarri dira, ondorioz urte horietako BPGren datuen zenbatespenak berrikusi direlarik. Berrikuspenaren ondorioz bi urte horietan bi hamarrenetan hobetzen dira euskal BPGren bilakaeraren zenbatespenak, hazkundearen azkenekoak %4,4 2006an eta %4,1 2007an direlarik.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

Tlf:+34-945-01 75 99 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp